

Ingurumen hezkuntza eta ondare kulturala

Jose Manuel Gutierrez Bastida eta Aitor Albizu Intxausti

• Sukarrieta Taldea

Sarrera

Gure proposamenaren zutabe teorikoak hauek dira: Ingurumen Hezkuntza (problematika, konplexutasuna, etika maila...) eta ikasketaren ikuspegi Konstruktibista (ezaguera eraiki egiten da)

Lan-Proiektuetan islatzen da honen zehaztapena eta ikasleekin hau gauzatzeko irteera (Ondare Naturala eta Kulturaren erabilpena, hemendik aurrera ONK) dugu errekurto didaktikorik aproposena, baina ez analisi hutsera mugatuz baizik eta ondareak zaindu eta babesteko behar diren baloreak ikasleengan garatzeko.

Proposamen honen bidez garapen jasangarrirako ingurumen hezkuntzaren azken xedea lortu nahi dugu: errezetak aplikatzera mugatzea baino, egungo eta etorkizuneko ingurumen (ONK) arazoaren aurrean banakako zein taldeko erantzuna eskaintzeko gaitasuna izango duten pertsonak hezitzea.

Aurkezpena

Sukarrieta Taldea izenarekin Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroko (Bizkaiko ikastetxeen zerbitzura dagoen hezkuntza-baliabide bat) Talde Pedagogikoa aipatu nahi da, erreferentzia egin ez bai taldea orainean osatzen duten pertsonen, bai bere historiako hogeitaz piku urteetan bertatik igaro diren guztiei.

Ekipo honen **xede** nagusiak hauek dira: batetik, Bizkaiko ikastetxeetako ikasleekin Ingurumen Hezkuntza programak garatzea eta, bestetik, hezkuntza ikerketan aritzea, metodologia, ebaluazio eta antzeko gaien inguruan, hainbat material prestatuz eta lanaren fruituak irakasleei eskainiz.

Ezagutzen gaituztenek gure **oinarri pedagogikoen** berri izan dute: hain zuzen ere, ingurumen hezkuntza eta ikastearen eraikitze prozesuen inguruko teoria konstruktibistak. Aipatutako zutabe bietan oinarritzen dugu ikasleekin daramatzagun Lan-Proiektuak, ingurumen problematika batzuen inguruak eratzeko direnak: Lurra (nekazaritza eta abeltzantzari buruzkoa), Basoa, Urdaibaiko Itsasadarra, Planeta Berdea (gure kontsumo ohiturari buruzkoa) eta Ura.


Oinarri berberen gainean sortu dira irakasleenganaino heldu diren beste lan eta **material** batzuk, hala nola “Basoa inguruko-ikuspegitik lantzeko 50 proposamen” izeneko liburuaren fitxak eta gidaliburua, “Aurretiazko ideiak eta ingurumen hezkuntza” izenburupean argitaraturiko ikerlana “Urdaibaiko basoak” kanpo gidaliburua, edo inprentan dagoen “Ura: aniztasunari ekiteko hamaika proposamen”, gehi Sukarrietan ohizkoak diren fitxak eta material osagarriak, aldizkari espezializatuetan agertutako artikuluak, kongresuetan aurkeztutako ponentziak...

Bizkaiko ikastetxe gehienak bertotik pasatzean **ikuspegi nabarmen** nabari ikus dezakegu. Alde batetik, gure herrialdeko hezkuntza eta ingurumenarekiko panorama. Beste alde batetik, bertan berrikuntza pedagogikoan erakusten diren metodologiak etab herrialdeko eskoletan irakasleek frogatzeko aukera dute, eta Lan-Proiektu ezberdinak garatzean, ikasleek ingurumenaren alde hartutako konpromezuak beraien herri eta eskoletan gauzatu ahal izango dituzte.

Gure eginkizuna aurrera ateratzeko ezinbestekoa dugu errealitatearekin, ingurumenarekin, **Ondare Natural, Kulturala**, Soziala eta abarrekin, kontaktua eta harremanak izatea, hau da, **irteerak** egitea.

Marko teorikoa

Proposamen hau garatzeko marko edo eremu teoriko batetik abiatzen gara. Eta eszenario honetan, oinarri teorikoei darian ideiak hiru konkretzio maila ezberdinetan zehazten dira (1.irudia).



Lehenengo zehaztapan mailan Ingurumen Hezkuntza eta Ikuspegi konstruktibista dira protagonista.

Ingurumen Hezkuntza, azken urte hauetan, dimentsio berri bat hartzen ari da gizartearen baitan, bereziki hezkuntza arloan. Dimentsio horrek sorburu bikoitza du: hezkuntza baliabide moduan ingurumena (ONK barne, jakina) erabiltzea eta gure gizartearen garapen ereduak sortutako arazoak kontutan hartzea. Azken ildo hauei jarraituz, gure lanean islatu nahi dugun ikuspegiak honako puntu hauek hartzen ditu:

- Ingurumen hezkuntzak naturaren alderdi fisiko-naturalak aztertzen dituen kontzeptua gainditzea, giza, kultura, ekonomia... alderdiak sartuz. Gurean xedea ez da zenbait elementu eza-gutzea, faktore anitzetako **problematika** konpontzeko bidea topatzea baizik.
- Ingurumena oro har eta era **komplexuan** ulertzea, kontutan izanik faktore ezberdinen esku-hartzea dagoela (kulturalak, ekonomikoak, sozio-politikoak...). Hortaz helburua ez da elementu bakoitza bere aldetik ezagutzea, faktore ezberdinen arteko elkareraginak aztertzea baizik.
- Ondorengo fase batean **etika maila** eransten da, hau da: jarrera hartzearen beharrezan (norbanaka zein kolektiboki) eta problematika horren konponbidean parte hartzea.

Hau guztia era egokian gauzatzeko, gure interbentzio lana **konstruktibismoaren** oinarri nagusietan errotzen dugu eta hiru ideia-klabe hartzen ditugu kontutan.

- Ikaste prozesua **ingurumenarekin elkarreraginean** garatzea, buru jarduera sendo baten oinarrituta.
- Ikaslearen **aurretiatzko ideietatik abiatzea**, ezaguera berriak eraiki eta gaitasunak garatu ahal izateko.
- **Ikasitako esanguratsua izatea** eta beste esparru batzuetan aplikagarria izatea.

Bigarren zehaztapen maila batean **Lan Proiektuak** ditugu. Bertan garatzen dugu gure eginkizuna, hau da lehenengo zehaztapen mailan esandakoa gauzatzen dugu.

Lan proiektu bakoitza **problematika** batetik abiatuko da, eta ingurumen hezkuntzaren pausuak (sentsibilizazio, ezaguera, kontzientziazio eta jarrera hartzea) eta ikuspegi konstruktibistatik abiatutako printzipio metodologikoak uztartuz bost egunetan garatzeko ingurumen programa bat da.

Programa garatu ahal izateko saio bakoitzak bere **helburuak** eta aukeratutako hiru motatako **edukien** sekuentziarioa izango ditu eta Lan- Proiektu bakoitzak bere ekintza sorta, denboralizazioa, eta abar... ba du ere, errekurtso didaktiko bat izango da Lan- Proiektu guztietan ardatz eta saihestu ezinena, **IRTEERA**.Egun bost proiektu garatzen ditugu Sukarrietan: Basoa, Lurra, Planeta Berdea, Ura eta Itsasadarra.

Lan proiektu guztiak **Urdaibaiko problematika ezberdinetatik abiatzen** dira, **Urdaibain jorrazten** dira eta guztien helburu nagusia **Urdaibairen aldeko ekimenak** eta konpromezuak hartzea da.

Esan beharrik ez dago bertoko ondare naturalaren aldeko ekimenak bultzatuz planetako ondare naturalaren aldeko ekimena bultzatzen ari garela.

Proposamena

Gure hirugarren zehaztapen maila, asteko programazioa eta saioen garapenean ematen da eta bertan egiten den problematikaren ikerketak hiru jarduera maila hartzen ditu kontutan.

- **Ingurunean bertan** burututako ezagutza: aztertu nahi den inguruarekin eta beraren problematikarekin kontaktuan. Horregatik, funtsezko baliabide bihurtzen da **IRTEERA** (Ondare Natural eta Kulturalaren erabilpena)
- **Inguruneari buruzko** ezagutza: ingurune fisiko-naturala, politikoa,soziala... kontrolatzen duten mekanismoak ulertzeko ezaguera multzoa. **HAUSNARKETA**
- **Ingurunearen aldeko** ezagutza:arazoen aurrean jarrera hartzea bultzatuz, inplikazioa bilatuz eta ingurumenarekiko aldeko jarrerak bereganatuz.


Lan-Proiektuetan bi irteera mota ditugu hausnarketara heltzeko, batzutan behaketa da bidea eta bestetan ikerketa.

Lan-Proiektu guztien **abiapuntua** paisaiaren behaketa da, beraz, bera da Ondare Natural eta Kultureko aztertzen dugun lehendabiziko elementua eta Lan-Proiektuen garapenean zehar duen garrantziagatik ondorengo jarduera guztien ardatza izango da.

Harrigarria da zenbat ikuspegi ezberdinetatik aztertu ahal den **paisaia** eta nolako malgotasuna eta dinamismoa erakusten duen interpretazioa egiterakoan. Hurrengo suzesioan horren adibide argia ikusi ahal izango duzue.

- Planeta Berdean bizitzarako beharrezkoak ditugun lehengaien iturria Natura dela antzemateko PAISAIA aztertzen da errekurtsoen gordeleku bezala.
- Gure elikagaien iturria lurtean egonik Paisaian behatuko dugu lur eta baserrien gaur egungo egoera.
- Basoaren problematikaz ohartu ahal izateko PAISAIA urteetan zehar emandako bilakaeran jarriko dugu arreta.
- Itsasadarreko ekosistemen aniztasun, aberastasun eta giza jarduerak izan ahal duten eraginaz sentiberatzeko PAISAIA dauden elementu ezberdinen behaketa.

- Uraren ziklo integralean zer ikusirik duten alderdietaz jabetzeko PAISAIA n dauden elementuen artean esanguratsuenak identifikatu.



Irteera eredu bat ezagutu ondoren joan gaitezen aztertzeraz ikerketa bidetzat erabiltzen duena (2. irudia).

Edozein irteera egiterakoan (artadia, padura, kostaldea, haltzadia, erreka, pinudia, zerrategia, aroztegia, museoa, araztegia, baserria, azoka, kontserba lantegia, portua, untziola, errauskailua, zabortegia, garbigunea...) **ikerketa** izango da ardatza.

Batzutan ikertuko den **objektua bera** ONK izango da hutsean (padura, baserria, museoa...), beste batzutan ONK, beraiek ikerketa objektua ez izanik, **informazioa** ematen digu problematika ulertzeko, eta beste batzuetan irteera (araztegia, untziola, zabortegia...) erabiltzen dugu ONK pairatzen duten **problematika** ulertzeko.

Adibidez, haltzadiko irteera hartzen badugu imagina ezazu Ondare Naturalen aldetik zelako biotopoa, biozenosia, ekosistema... ikertu ahal dugun, eta Ondare Kulturalaren aldetik zenbat historio kontatu ahal ditugun, zelako ohiturak agertu ahal diren, zenbat toponimia daukagun inguruan, zenbat kirolek duten beraien jatorria hortan...; eta haien arteko fluxua: lanbidetan, energia iturrietan, merkataritzan... laburbiltzen dena.

Irteeraren iharduerak garatu ondoren **hausnarketa** prozesu bati ekiten diogu non bakoitzak bere sentsazio, ezaguera eta ondorioetatik parte hartzen du eta bidea irekitzen du jarrera aldaketa bul-tzatzeke eta ONK babesa eta hobekuntzaren aldeko ekimenera pasatzeko.

Ekimenera pasatzeko hiru urrats planteatzen dira:

Zer **egin daiteke**? → Garapen sostengarria aldarrikatu.

Zer **egin dezakegu**? → Gure eskura dagoena pentsatu, proposatu...

Zer **egingo dugu**? → Ekintza konkretu batzutan parte hartu: kanpaina informatiboa anto-latu, papera birziklatzen ikasi, bertoko zuhaitzak landatu...

Horrela astean zehar eta ingurumen programa, proposamen oso bat bezala ulerturik, problema-tika hori ekiditzen lagunduko duten **alternatibak** eraikitzen joaten gara.

Ondorioak

Argi ikusten da beraz, Ondare Natural eta Kulturalaren erabilpena **ezinbesteko baliabidea** dela ingurumen hezkuntzako helburuak eta xede nagusiak lortu ahal izateko. Sukarrieta Taldeak errealitatea eta Ondare hauekin **elkarreraginean ihardutearen** apostua egiten du.

Guretzat Ondarea ez da kutxa batean gordetik egon behar duen harri-bitxi bat, **ingurumena bera osotasunean da Ondarea**. Eta beraz, bidea ez da planetan zenbait Biosfera Erreserba izendatzea, baizik eta **Biosfera bera Erreserba** izatea.

Izan ere, ingurumen hezkuntzaren azken lan-ildoak bide honetatik doaz.

Eta hain zuen ere, proposamen honen bidez lortu nahi duguna garapen jasangarrirako ingurumen hezkuntzaren azken xedea da: errezetak aplikatzera mugatzea baino, **egungo eta etorkizuneko ingurumen (Ondaren Naturala eta Kulturala) arazoan aurrean banakako zein taldeko erantzuna eskaintzeko gaitasuna izango duten pertsonak hezitzea**.

Bibliografia

- DEL CARMEN, I. (2003): "Salir para conocer, salir para participar" *in* Aula de Innovación Educativa, 125 zkia.
- Mayer, M. (2001): "Nuevos retos de la educación ambiental". CENEAM karpeta, 2003.eko otsaila. Madril.
- Novo, M. (1998): "Educación ambiental. Bases éticas, conceptuales y metodológicas." Universitas. Madril.
- Sukarrieta Taldea (1998): "Aurretiazko Ideiak eta Ingurumen Heziketa". BBK Fundazioa/Eusko Jaurlaritzza-Hezkuntza Saila. Bilbo.
- Sukarrieta Taldea (2002): "Urdaibaiko basoak". Eusko Jaurlaritzza-Lurralde, Antolamendu eta Ingurumen Saila/Urdaibaiko Patronatua. Bilbo.


EDUCACIÓN AMBIENTAL Y PATRIMONIO NATURAL Y CULTURAL

1. PRESENTACIÓN

Con el nombre de Sukarrieta Taldea se quiere citar el grupo pedagógico de CEEP (Centro de Experimentación Escolar de Pedernales). Tiene como objetivo elaborar programas de educación ambiental y desarrollar la investigación educativa con los alumnos de los centros de enseñanza de Bizkaia.

2. MARCO TEÓRICO

Nuestro esquema de trabajo es el que se puede ver en la imagen.



Las líneas teóricas de nuestra propuesta son las siguientes: educación ambiental (problemática, complejidad, nivel de ética) y el punto de vista constructivista del aprendizaje (el conocimiento se construye).

Se concreta en el proyecto de trabajo, tiene las salidas como recurso didáctico más adecuado (utilización del patrimonio natural y cultural); pero no se ha de limitar simplemente a un análisis, sino que ha de desarrollar entre los alumnos los valores necesarios para cuidar y proteger el patrimonio.

Se podría resumir en esta frase:

Partiendo de Urdaibai, trabajando en Urdaibai y a favor de Urdaibai

Huelga decir que promoviendo iniciativas a favor del patrimonio natural de aquí, estamos impulsando actuaciones en favor del patrimonio natural del planeta.

3. PROPUESTA

Todo punto de partida de un proyecto de trabajo es el análisis del paisaje. Por lo tanto, es el primer elemento que se analiza en el Patrimonio natural y cultural, además del eje de todas las demás actuaciones, por la importancia que tiene en el desarrollo del proyecto de trabajo.

Es curioso ver desde qué puntos de vista tan diversos se puede analizar el paisaje: como reserva de recursos, la importancia del caserío para la conservación del paisaje; la evolución del paisaje, al percibirse de la problemática de los bosques; los elementos, actividades humanas y los impactos del paisaje sobre el río; el ciclo integral del agua en el paisaje; el agua como modelador del paisaje...

Posteriormente, cada proyecto de trabajo se desarrolla en su correspondiente campo. Allí, mediante salidas y empleando el patrimonio natural (biotopo, biocenosis, ecosistema...) y cultural (toponimia, leyendas-costumbres, actividades humanas...), el objetivo será promocionar el cambio de actitud e iniciativas a favor de esos patrimonios.

4. CONCLUSIÓN

Mediante esta propuesta, se pretende conseguir el objetivo último de la educación ambiental para el desarrollo sostenible: más que limitarse a aplicar recetas, educar personas que sean capaces de dar respuestas individuales o colectivas frente a cualquier problema medioambiental (patrimonio natural y cultural) actual o del futuro.